



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Enkarterrietako Museoak guztientzako kultur proposamen zabala eskainiz hasiko dau ikasturtea

- **Ikasturte honetarako barritasunen artean nabarmentzekoa da Enkarterriko ontzi munduari buruz abenduan hasita ikusi ahal izango dan erakusketea.**
- **Tailerretan parte hartzeko ikastetxeek izena emoteko daben epea zabalik dago. Joandako ikasturtean 8.890 eskola-umek parte hartu eben, sekulako gehien museoaren historian.**

Abellanedan, 2014ko irailaren 9an.

Enkarterrietako Museoak guztientzako kultur proposamen zabala eskainiko dau 2014-2015 ikasturtean. Bizkaiko Batzar Nagusiek Abellanedako batzarretxean (Sopuertan) daben kulturgune horretan erakusgai dagoz eskualdearen bizimodua eta historia aztertzeko eta gureganatzeko osagaiak (artelanak —orijinalak zein erreprodukzioak—, maketak, planoak, argazkiak...), eta horreen lagungarri, tailer praktikoak dagoz Bizkaiko eskola-umek era atseginean eta jolasgarrian ikuspegi argiagoa izan daien eskualdearen historiari buruz. Ikasturte honetarako barritasunen artean nabarmentzekoa da “Enkarterriko ontzi mundua” izeneko aldibaterako erakusketea, urte biko azterlanaren emaitza, eskualde horrek Erdi Aroan hasita itsasketan, gauza ia ezezaguna izan arren, izan dauen tradizino handiaren barri emon gura dauena

ZABALIK DAGO TAILERRETARAKO IZENA EMOTeko EPEA

Urtero lez, kultur egitaraua eskola-umeentzako tailerrakaz hasiko da. Enkarterrietako Museoak zabalik dau tailerretan parte hartzeko Bizkaiko eta inguruko ikastetxeek izena emoteko daben epea. Tailerrak ohikoak dira (Historiaurreko tailerra, erromatarren garaiari buruzkoa, eta Erdi Arokoa). Beste alde batetik, igaz hasi zan bideari jarraituz, aurton be “Batzar gaitezen Abellanedan” izeneko ekimena egingo da, gazteek Enkarterriko Batzarrak hobeto ezagutu daiezan.

Parte hartu gura daben ikastetxeek hitzordua eskatu leikie Museoko telefonoen bitartez (94 650 44 88 / 94 610 48 15) zein posta elektronikoaren bitartez (enkarterrimuseoa@bizkaia.net). Joandako ikasturtean 8.890 eskola-umek hartu eben parte ekimen didaktiko horreetan, sekulako gehien Museoaren historian. Museora 395 talde etorri ziran, gehienak Bizkaikoak, baina Kantabriakoak eta Gipuzkoak be bai.

Joandako ikasturteko barritasunik nabarmenenak izan ziran, batetik, “Batzar gaitezen Abellanedan” izeneko tailerra”, ekimenak dirauen artean DBH eta Batxilergoko ikasleak Abellanedako Batzarretxeko batzarkide bihurtu eta erakundearen ezagutza sakonagoa izan daien; eta bestetik,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

“Erromatarren atzetik” izeneko ekintza didaktikoa, orduko garaietara bidaiatu eta erromatarren inperioak eskualdean itxi ebazan aztarnak ezagutzera bideratutakoa.

Irakasleek zein ikasleek hain ondo hartu dabenez Bizkaiak —Enkarterria barruan dala— mendeetan zehar izan dauden eraketa politikoa eta administratiboa era atseginean eta parte hartzailean ezagutzeko ekimen hori, Museoak erabagi dau tailer hori barriro egitea eta sendotzea. Ekimenaren bitartez, ikasleak Batzar Nagusi bateko batzarkide bihurtzen dira eta aukera dabe Batzar Nagusien egitekoak eta ahalmenak zeintzuk diran ezagutzeko.

HISTORIAURREKO, ERROMATARREN AROKO ETA ERDI AROKO TAILERRAK

Lehenengo, Historiaurreko eta Erdi Aroko tailerrak hasiko dira urrian. Historiaurrekoan, ikasleek harrizko lanabesak egiten, sua egiten eta kobazuloetako hormetan margoak egiten ikasten dabe. Erdi Arokoan, esate baterako, arte erromanikoaren inguruko ezagutza lantzen da —eleiza bat zelan eraikitzen dan— eta idazkera gotikoaren oinarriak azaltzen dira. Geroago etorriko da “Erromatarren atzetik” izeneko tailerra; ikasleek erromatarren garaira bidaiatuko dabe eta era atseginean eta bizian ezagutuko dabez zibilizazio horren osagairik nagusienak.

ESZENA ARTEAK

Museoak eutsi egingo deutse ume gazteenek oso gustoko dabezan ekimenei. Hain zuzen be, “Bizi zure kontua” eta “Sortu dezagun gure munstroa” deritxenei. Lehenengo horren bitartez, lehen hezkuntzako umeak historiaren protagonista bihurtzen dira, antxinakoen bizimodua zelango zan ikusi daien. “Sortu dezagun gure munstroa” ekimenaren bitartez, ikasleek ezagutu ahal izango dabez gure eleiza, komentu eta ermitetan dagozan izaki fantastiko horreek zer diran. Tradizioa ezagutarazoteko apustu horren barruan be, zenbait “kontu kontari” etorriko dira Museora, umeek kontuen mundua gozatu daien.

Enkarterrietako Museoak aurtan be eskualdeko ikastetxeakazko alkarlanari ekingo deutso. El Pobaleko olagaz baterako ekintza gauzatuko dau, bisitaldi gidatuen bitartez ikusi ahal izateko burdingintzak eta olek eskualde honen bilakaeran norainoko garrantzia izan daben.

ALDIBATERAKO ERAKUSKETAK

Maiatzetik hasita ikusgai dago “Bizkaiko azken maisu jostunak” izeneko erakusketea. Abenduan hasiko da “Enkarterriko ontzi mundua” izenekoa. Almiranteak, jeneralak, kapitaiak, merkatariak, kontrabandistak, zamariak, arrantzaleak, alturako eta baxurako pilotuak, kortsarioak... Enkarterriko kostaldeko —batez be Somorrostroko Haranekoak eta Portugaletoko uribildukoak— marinelak entzutetsuak izan ziran mendeetan zehar. Enkarterrietako Museoak must egingo dau Enkarterriaren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eta itsasoaren arteko hartu-emonean, urte biko ikerketearen emaitzari buruz atonduko dauen erakusketa horretan.

Argibide gehiagotarako

- Ainara Arranz. Enkarterrietako Museoaren hezkuntza eta kultur ekimen arloko arduraduna (94 650 44 88)
- Javier Barrio. Enkarterrietako Museoko zuzendaria (656411760)

<http://www.enkarterrimuseoa.net/>

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El Museo de Las Encartaciones arranca el curso con un amplio abanico de propuestas culturales para todos los públicos

- **Entre las novedades de esta nueva temporada destaca la exposición temporal sobre el mundo naval de Las Encartaciones que se podrá ver a partir del próximo mes de diciembre.**
- **Abierta la inscripción para que los centros escolares reserven plaza en los diferentes talleres programados por donde el curso pasado pasaron 8.890 niños y niñas, la cifra más alta en la historia del museo encartado.**

Abellaneda, a 9 de septiembre de 2014.

El Museo de Las Encartaciones ha preparado para el curso 2014/2015 un amplio programa de actividades culturales dirigido a todos los públicos. El centro cultural de las Juntas Generales de Bizkaia ubicado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta), mostrará la vida e historia de la comarca a través de elementos expositivos (piezas artísticas, recreaciones, maquetas, planos, fotografías...), que se completan con los talleres prácticos sobre diferentes etapas históricas para que los escolares vizcaínos aprendan por medio de la experimentación y el juego. Entre las novedades para este año, destaca la exposición temporal “El mundo naval de las Encartaciones”, la “guinda” a un trabajo de investigación que ha durado dos años y en la que se mostrará la desconocida tradición marinera de esta comarca desde la Edad Media.

ABIERTO EL PLAZO PARA LOS TALLERES ESCOLARES

Como todos los años, la programación cultural arrancará con los talleres escolares. El Museo de las Encartaciones ha abierto ya el plazo de inscripción para que los centros educativos de Bizkaia y territorios limítrofes puedan apuntarse tanto a los talleres clásicos que viene ofertando el centro (Prehistoria, Romanización y Edad Media) como a la convocatoria de una Junta juvenil, iniciativa puesta en marcha el año pasado para que los jóvenes conozcan el funcionamiento del parlamento encartado.

Los centros interesados pueden concertar cita previa a través de los teléfonos del museo (94 650 44 88 / 94 610 48 15) o por medio del correo electrónico (enkarterrimuseoa@bizkaia.net). Durante el curso pasado, un total de 8.890 escolares completaron el cupo de inscripciones de estas aulas didácticas, lo que supuso la cifra más alta en la historia del centro encartado. Hasta Abellaneda se acercaron 395 grupos procedentes en su mayoría de localidades vizcaínas, aunque las actividades del museo no pasaron desapercibidas para centros escolares de Cantabria y Gipuzkoa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En este apartado, las dos grandes novedades de la temporada pasada fueron la puesta en marcha del taller “Juntémonos en Abellaneda”, una simulación de lo que eran las sesiones plenarias en la Casa de Juntas, en este caso con la participación de alumnado de la ESO y Bachillerato, y el aula pedagógica “Tras los Romanos”, un viaje simulado a los principales focos de interés que dejó el imperio romano a su paso por la comarca.

Tras la buena acogida recibida por parte del profesorado y del alumnado, el museo encartado ha decidido ampliar la oferta para consolidar la actividad que, de una forma amena y participativa, da a conocer la organización político-administrativa de Bizkaia a lo largo de los últimos siglos y más, concretamente, de Enkarterri. Los alumnos y alumnas se convierten en junteros y junteras en una sesión plenaria ideada para que comprendan las funciones y competencias de las Juntas Generales.

TALLERES SOBRE PREHISTORIA, ROMANIZACIÓN Y EDAD MEDIA

En cualquier caso, las primeras actividades infantiles en ponerse en marcha serán los talleres dedicados a la Prehistoria y a la Edad Media, los cuales comenzarán en el mes de octubre. En el primero, los alumnos aprenden a tallar útiles, hacer fuego y pintura rupestre. En el de la Edad Media, se instruyen sobre el arte románico mediante la construcción de una iglesia. En este taller se inician también en los fundamentos de la escritura gótica. Más adelante, en el taller “Tras los Romanos”, los participantes viajarán en el tiempo hasta la época romana, y de una manera atractiva y experimental, conocerán los elementos más destacados de esta civilización.

ARTES ESCÉNICAS

Asimismo, el Museo seguirá contando con otras iniciativas muy populares entre los más pequeños. En la actividad “Vive tu cuento”, los alumnos de primaria participarán activamente como protagonistas de una historia para penetrar en la vida rural de nuestros antepasados. Por su parte, la iniciativa “Creando monstruos” está pensada para que los pequeños conozcan los seres fantásticos y monstruos que pueblan nuestras iglesias, conventos y ermitas. En esta apuesta por la tradición, se han programado también diversos cuentacuentos que transmitirán historias orales a los niños.

El museo encartado seguirá apostando durante este curso por la colaboración con otros centros de interés de la comarca. Realizará una actividad conjunta con la Ferrería de El Pobal con visitas guiadas para dar a conocer el mundo del hierro, tan importante para el desarrollo económico y social de Las Encartaciones.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EXPOSICIONES TEMPORALES

A la muestra actual sobre la evolución de la sastrería vizcaína durante el último siglo titulada “Los últimos maestros sastres de Bizkaia”, le seguirá ya en diciembre la exposición “El Mundo naval de Las Encartaciones”. Almirantes, generales, capitanes, comerciantes, contrabandistas, venaqueros, pescadores, pilotos de altura y bajura, corsarios... Los marinos de la costa encartada, principalmente del valle de Somorrostro y de la villa de Portugalete, fueron conocidos durante siglos. La muestra que prepara el centro cultural de Abellaneda buceará en esa relación de Las Encartaciones con el mar, una iniciativa que culmina un proceso de investigación que ha durado dos años.

Más información

- Ainara Arranz. Responsable del Departamento de Educación y Acción Cultural del Museo de las Encartaciones (94 650 44 88)
- Javier Barrio. Director del Museo de las Encartaciones (Tfno.: 656411760)

<http://www.enkarterrimuseoa.net/>

<http://www.facebook.com/pages/MUSEO-DE-LAS-ENCARTACIONES-ENKARTERRIETAKO-MUSEOA/155376924525304>